



Usurbilgo Udala

## **USURBILGO UDALAK COVID-19 BIRUSAK ERAGINDAKO SALBUESPENENKO EGOERAK IRAUTEN DUEN BITARTEAN OINARRIZKO ELIKADURA BERMATZEKO DIRULAGUNTZA DEIALDI IREKIA**

### **ZIOEN AZALPENA**

Usurbilgo Udalak larrialdi egoera dela eta, egoera zaurgarrian dauden pertsonen oinarrizko elikadura bermatu eta Elikagai Bankua ixteak eta beste hainbat zerbitzu eteteak eragindako kalteak arintzeko asmoz.

Horren guztiagatik, Usurbilgo Udalak, bere aurrekontu baliabideen esparruan, larrialdi egoera arintzeko dirulaguntza lerro bat onartu du.

Deialdi honek hainbat dirulaguntza jasotzen ditu agiri bakar batean, dirulaguntzak hartuko dituzten familia unitateei araudi erreferentzia bakarra emateko eta, aldi berean, espedienteak izapidetzean egin beharreko kudeaketa administratiboak samurtzeko.

Deialdi honetan hauek ezartzen dira:

1. Araudi aplikagarria eta eskumenak: 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen 21.1.m) artikulua.
2. Covid-19ak eragindako salbuespenezko egoera eta haren hedapena geldiaraztera bideratuta 2020ko martxoaren 14an Ministroen Kontseiluak alarma egoera deklaratzeko duen 463/2020 Errege Dekretua.
3. Usurbilgo Udalaren diru laguntzak arautzeko ordenantza (GAO 2008-07-01).

### **OINARRI OROKORRAK**

#### **I. XEDEA**

##### **1. artikulua.**

Oinarrizko elikadura bermatzea

##### **2. artikulua.**

Oinarriok behar bezala zabaldu eta iragar daitezzen, oso-osorik argitaratuko ditu Udalak bai Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean bai udaletxeko iragarkien taula orokorrean bai Udalaren webgunean

## **CONVOCATORIA PÚBLICA DE LA SUBVENCIÓN PARA GARANTIZAR LA ALIMENTACIÓN BÁSICA MIENTRAS DURE LA SITUACIÓN EXCEPCIONAL DEL VIRUS COVID-19 POR EL AYUNTAMIENTO DE USURBIL**

### **EXPOSICIÓN DE MOTIVOS**

El Ayuntamiento de Usurbil teniendo en cuenta la situación de emergencia, para garantizar la alimentación básica de las personas que estén en situación de vulnerabilidad y dado el cierre del Banco de Alimentos y otros tantos servicios quiere proteger las carencias que pueda acarrear esta situación.

Por todo ello, el Ayuntamiento de Usurbil ha creado, en el marco de sus recursos presupuestarios, una línea de subvención para paliar la situación de emergencia.

La presente convocatoria reúne en un único documento varias subvenciones, a conceder a las unidades familiares destinatarias de las ayudas económicas una única referencia normativa, al tiempo que se facilitan las gestiones administrativas.

En la presente convocatoria se aplican:

1. Ley aplicable y competencias: artículo 21.1.m) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local.
2. Real Decreto 463/2020, de 14 de marzo, por el que se declara el estado de alarma para la gestión de la situación de crisis sanitaria ocasionada por el COVID-19.
3. Ordenanza reguladora de subvenciones del Ayuntamiento de Usurbil (BOG 01-07-2008).

### **BASES GENERALES**

#### **I. OBJETO**

##### **Artículo 1.**

Garantizar la alimentación básica.

##### **Artículo 2.**

Para garantizar la adecuada difusión y publicidad de las presentes bases se procederá a su publicación íntegra en el Boletín Oficial de Gipuzkoa así como en el Tablón General de Anuncios del Ayuntamiento



Usurbilgo Udala

(<http://www.usurbil.eus/eu/dirulaguntzak>).

### 3. artikulua.

Dirulaguntza hauek emateko eta Udalaren eta onuradunen arteko harreman juridikoa zehazteko, oinarri hauek eta dirulaguntza ematean indarrean dauden gainerako arauak bete beharko dira.

### 4. artikulua.

Ez dira aintzat hartuko beste udal partida edo deialdietatik dirulaguntza jasotzen duten ekintzak.

## II. BALDINTZAK

### 5. artikulua.

Dirulaguntza hauen subjektu onuradunak Usurbilgo udalerrian erroldatuak egon beharko dute eta jarraian adierazitako bietako baldintza bat bete beharko dute:

- Elikagaien Bankuko erabiltzailea izatea edo,
- Behar besteko baliabiderik ez izatea oinarrizko elikadura bermatua izateko.

## III. DIRULAGUNTZA

### 6. artikulua.

Dirulaguntzaren zenbateko COVID-19ak sortutako larrialdi egoerarako izendatutako aurrekontu-partida gastura joango da.

## IV. ESKAERAK AURKEZTEKO LEKUA ETA DOKUMENTAZIOA

### 7. artikulua.

Eskariak **TELEMATIKOKI** egin beharko dira Udaleko Erregistro Nagusian: [erregistroa@usurbil.eus](mailto:erregistroa@usurbil.eus)  
**ADI! SALBUESPENEZKO EGOERA BATEN AURREAN BAKARRIK EMANGO DA ARRETA PRESENTZIALA** eta horretarako aurretiazko hitzordua eskatu beharko da 943 377 110 - 943 371 951 telefonora deituz.

Dirulaguntza eskaera egiteko, dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- Elikadura Bankuko erabiltzailea dela frogatzeko Caritas elkarteak luzatutako ziurtagiria.
- Eskatzailearen izenean dagoen bankuko kontu korrontearen ziurtagiria.
- Eskaera orria. ( I. Eranskina, Udalean eta

y en la página web del Ayuntamiento (<http://www.usurbil.eus/eu/dirulaguntzak>).

### Artículo 3.

La concesión de estas ayudas y la relación jurídica entre el Ayuntamiento y la persona beneficiaria se regirá por las presentes bases y demás normativa vigente en el momento de su concesión.

### Artículo 4.

No se tomarán en consideración aquellas acciones que ya sean objeto de subvención por parte de otras convocatorias o partidas municipales.

## II. CONDICIONES

### Artículo 5.

Las personas beneficiarias de estas subvenciones deberán estar empadronadas en el municipio de Usurbil y deberán cumplir una de estas dos condiciones:

- Ser usuaria o usuario del Banco de Alimentos o,
- No disponer de los recursos suficientes para asegurar una alimentación básica.

## III. SUBVENCIÓN

### Artículo 6.

Para determinar la subvención que percibirá cada unidad familiar se tendrá en cuenta lo siguiente:

## IV. LUGAR PARA LA PRESENTACIÓN DE INSTANCIAS Y DOCUMENTACIÓN.

### Artículo 7.

Las solicitudes deberán ser presentadas en el Registro General del Ayuntamiento **TELEMATICAMENTE: [erregistroa@usurbil.eus](mailto:erregistroa@usurbil.eus)**  
**ATENCIÓN! SOLO DE MANERA EXCEPCIONAL SE ATENDERÁ DE MANERA PRESENCIAL** y para ello se deberá pedir cita previa por teléfono 943 377 110 - 943 371 951

Para realizar la solicitud de subvención, deberá presentarse la siguiente documentación:

- Certificado de Cáritas para demostrar que es usuario del Banco de Alimentos.
- Certificado de una cuenta corriente bancaria que esté a nombre de la persona solicitante.
- Instancia de solicitud. (Anexo I, estarán disponibles en el ayuntamiento y en la web).



Usurbilgo Udala

web.ean eskuragarri egongo dira)

Edozein kasutan, aurreikusitako dirulaguntzari dagokion dokumentazioaz gain, eskatzaileei behar besteko informazio osagarria eskatu ahal zaie aurkeztutako ekimena behar bezala baloratu ahal izateko.

## **V. EPEAK**

### **8. artikulua.**

Deialdi honen indarraldia, argitaratu eta salbuespeneko egoerak irauten duen bitartekoa izango da, baldin eta, Usurbil Udalak beste erabakiren bat hartzen ez duen bitartean.

## **VI. PROZEDURA**

### **9. artikulua.**

Dagokion arloko teknikariak dirulaguntza eskariak ebaluatu ondoren, txostena egin eta Alkate dekretu bidez ebatziko dira.

### **10. artikulua.**

Dirulaguntza onartu dela jakinarazi bezain laster, dirulaguntzaren %100 ordainduko da.

### **11. artikulua.**

Araudi honetako dirulaguntzak bateragarriak izango dira bestelako erakunde publiko edo pribatuek xede bererako eman ditzaketen bestelako dirulaguntzekin.

## **VII. ONURADUNEN BETEBEHARRAK**

### **12. artikulua.**

Dirulaguntza emanez gero hauek onuradunaren betebeharrak dira:

- Dirulaguntza emateko eskatzen den jarduera egitea edo eskatutako jokabide hori izatea.
- Jarduera egiten ari dela frogatzea. Orobat, laguntza emateko bete beharreko eskakizunak eta baldintzak betetzen dituela egiaztatzea.
- Diruz lagundutako jarduera bete direla ziurtatzeko erosketa agiri guztiak eskuratzea.
- Dirulaguntza eskaini duen Usurbilgo Udalak egin beharreko egiaztatze-

Además de la documentación referida a la subvención prevista, se podrá requerir a la persona solicitante que facilite la información complementaria que se estime oportuna para valorar adecuadamente la iniciativa en cuestión.

## **V. PLAZOS**

### **Artículo 8.**

Esta convocatoria estará en vigor desde que se publique y mientras dure la situación de excepción siempre y cuando el Ayuntamiento de Usurbil no cambie de decisión.

## **VI. PROCEDIMIENTO**

### **Artículo 9.**

El personal técnico del área evaluará las solicitudes de subvención y se encargará de realizar un informe y se resolverán mediante decreto de Alcaldía.

### **Artículo 10.**

Una vez se haya notificado la concesión de la subvención se procederá inmediatamente al pago del 100% de lo concedido.

### **Artículo 11.**

Las subvenciones reconocidas por la presente Normativa serán compatibles con cualesquiera otras, concedidas por Organismos Públicos o Privados.

## **VII. OBLIGACIONES DE LOS BENEFICIARIOS**

### **Artículo 12.**

En caso de concesión de subvención son obligaciones de la persona beneficiaria las siguientes:

- Realizar la actividad o el proceder solicitado y objeto de la subvención concedida.
- Acreditar la realización de la actividad y, en definitiva, el cumplimiento de los requisitos y condiciones que determinan la concesión de la ayuda.
- Obtener todos los tickets de compra para comprobar el cumplimiento de la actividad objeto de subvención, y cumplir lo establecido en los mismos.
- El sometimiento a las actuaciones de comprobación a efectuar por el Ayuntamiento de



Usurbilgo Udala

jarduketei trazarik ez jartzea, ez eta esku-hartzailtzari dagozkion finantza-kontrolako jarduketei, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren jarduketei edota eskumen hori duten bestelako organoen jarduketei ere.

- Beste administrazio edo erakunde batzuetatik (publiko nahiz pribatuetatik, estatuko nahiz nazioartekoetatik) helburu berbererako beste dirulaguntzarik jasotzen bada, dirulaguntza eskaini duen organoari horren berri ematea.

Bestalde, udal betebeharreri dagokienez, udalak berak ofizioz, dagozkion ziurtagiriak eskura ditzake.

Udalak edozein momentutan eskatu diezaieke onuradunei betebeharrak hauek betetzen dituztela kreditatu dezaten.

### **VIII. DIRULAGUNTZA JUSTIFIKATZEA** **13. artikulua.**

Dirulaguntza justifikatzeko, pertsona onuradunak jarraian zehazten den dokumentazioa aurkeztu beharko du:

- a) Erosketa agiri guztiak.

Dirulaguntza ekintzaka zurituko da.

Jasotako dirulaguntza justifikatu beharko da, berriro ere eskatu ahal izateko.

### **ERANSKINAK**

#### **1. eranskina. Elikagai Bankuko erabiltzaileen dirulaguntza deialdia arautuko dituzten oinarriak.**

##### **1. artikulua. Xedea**

Elikagai Bankuko erabiltzaileen oinarriko elikadura bermatzea.

Diruz lagunduko dena da, beti ere, deialdi honetan ezartzen diren baldintzak kontuan izanda.

##### **2. artikulua. Aurkeztu beharreko dokumentazioa:**

Dirulaguntza eskaera egiteko, ondorengo dokumentazioa ere aurkeztu beharko da:

Usurbil y a las de control financiero que corresponden a la Intervención y a las previstas en la legislación del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas u otros órganos que tengan atribuidas dicha competencia

- En caso de percibir alguna otra subvención, para el mismo objetivo, de otras administraciones o instituciones (sean públicas o privadas, estatales o internacionales), informar al órgano ofertante de la subvención.

Por otra parte, con relación a las obligaciones del Ayuntamiento, el mismo, de oficio, podrá recabar los certificados correspondientes.

El Ayuntamiento podrá solicitar en cualquier momento a las personas beneficiarias que acrediten el cumplimiento de estas obligaciones.

### **VIII. JUSTIFICACIÓN DE LA SUBVENCIÓN** **Artículo 13.**

Para la justificación de la ayuda concedida, la persona beneficiaria deberá presentar la documentación que se indica a continuación:

- a) Todos los tickets y documentos de compra.

La subvención se justificará por actividad.

Se tendrá que justificar la subvención para poder volver a solicitarla.

### **ANEXOS**

#### **Anexo 1. Bases que regulan la subvención para las Personas usuarias del servicio de Banco de alimentos.**

##### **Artículo 1. Objetivo**

Garantizar la alimentación básica de las personas usuarias del Banco de Alimentos.

Se subvencionará, en todo caso, teniendo en cuenta las condiciones que se establecen en la presente convocatoria.

##### **Artículo 2. Documentación a presentar:**

Para realizar la solicitud de subvención se deberá presentar la siguiente documentación:



Usurbilgo Udala

- Elikadura Bankuko erabiltzailea dela frogatzeko Caritas elkarteak luzatutako ziurtagiria.
- Banketxe edo aurrezki erakunde batek emandako agiria, non eskaera egin duen pertsona kontu korrante baten titularra dela ziurtatzen den.
- Eskaera orria. ( III. Eranskina, Udalean eta web.ean eskuragarri egongo dira).
- Certificado de Cáritas para demostrar que es usuario del Banco de Alimentos.
- Documento emitido por una entidad bancaria o de ahorro en el que se acredite que la persona solicitante es titular de una cuenta corriente.
- Solicitud. (III. Anexo, que estará disponible en el Ayuntamiento y en la web).

### 3.artikulua. Baloratzeko irizpideak

Dirulaguntzak ematerakoan, familia unitateko kideak hartuko dira kontuan, ondoko irizpideen arabera:

- Famili unitateko 1 edo 2 pertsona 100€/15 eguneko.
- Famili unitateko 3 edo 4 pertsona 150€/15 eguneko.
- 5 pertsonatik gorako famili unitateak 200€/15 eguneko.

### 4. artikulua. Dirulaguntza ordaintzea

Dirulaguntza eman dela jakinarazi bezain laster, dirulaguntzaren %100a ordainduko da.

### 5. artikulua. Dirulaguntza justifikatzea

Dirulaguntza justifikatzeko, pertsona onuradunak jarraian zehazten den dokumentazioa aurkeztu beharko du:

- Erosketa agiri guztiak.

Dirulaguntza ekintzaka zurituko da.

Jasotako dirulaguntza justifikatu beharko da, berriro ere eskatu ahal izateko.

### 6.artikulua. Zuriketa egiteko epea.

Dirulaguntza hau 15 eguneko epean justifikatu beharko da.

### Artículo 3.- Criterios de valoración

En la concesión de las subvenciones se tendrá en cuenta a los miembros de la unidad familiar, de acuerdo con los siguientes criterios:

- 1 o 2 personas de la unidad familiar 100 €/ por 15 días.
- 3 o 4 personas de la unidad familiar 150 €/ por 15 días.
- Unidades familiares de más de 5 personas 200 €/ por 15 días.

### Artículo 4. Pago de la subvención

Inmediatamente a la notificación de la concesión de la subvención, se procederá a tramitar el pago del 100% de la ayuda.

### Artículo 5. Justificación de la subvención

Para la justificación de la subvención, la persona beneficiaria deberá presentar la siguiente documentación:

- Todos los documentos de compra.

La subvención se justificará por actividad. Deberá justificarse la subvención recibida para poder volver a solicitarla.

### Artículo 6. Plazo de justificación.

La justificación de la ayuda deberá hacerse en el plazo de 15 días.



Usurbilgo Udala

**2. eranskina. Norbanakoek behar besteko baliabiderik izan ez eta, oinarritzko elikadura bermatua izateko dirulaguntza deialdia arautuko duen oinarriak.**

### **1. artikulua. Xedea**

Oinarritzko elikadura bermatzea oinarritzko elikadura ziurtatzeko baliabide nahikorik ez duten pertsonen.

Diruz lagunduko dena da, beti ere, deialdi honetan ezartzen diren baldintzak kontuan izanda.

### **2. artikulua. Aurkeztu beharreko dokumentazioa**

Dirulaguntza eskaera egiteko, ondorengo dokumentazioa ere aurkeztu beharko da:

- Banketxe edo aurrezki erakunde batek emandako agiria, non eskaera egin duen pertsona kontu korrante baten titularra dela ziurtatzen den.
- Eskaera orria. ( III. Eranskina, Udalean eta web.ean eskuragarri egongo dira).

*\*Salbuespen egoera honen aurrean, Alarma egoerak irauten duen bitartean Udalak ez du dokumentaziorik eskatuko.*

### **3. artikulua. Baloratzeko irizpideak**

Dirulaguntzen zenbatekoa ematerakoan, familia unitate bakoitzaren errentak hartuko dira kontuan:

- Kide bakarreko familia unitateak, urtean gehienez 13.427€ diru sarrerak badituzte, 100€/15 eguneko.
- Bi kideko familia unitateak, urtean gehienez 17.241€ diru sarrerak badituzte, 150€/15 eguneko.
- Hiru kide edo gehiagoko famili unitateak, urtean gehienez 19.072€ diru sarrerak badituzte, 200€/15 eguneko.

**Anexo 2. Bases que regulan la subvención para las personas que no disponen de los recursos suficientes para asegurar una alimentación básica.**

### **Artículo 1. Objetivo**

Garantizar la alimentación básica las personas que no disponen de los recursos suficientes para asegurar una alimentación básica.

Se subvencionará, en todo caso, teniendo en cuenta las condiciones que se establecen en la presente convocatoria.

### **Artículo 2. Documentación a presentar**

Para realizar la solicitud de subvención se deberá presentar la siguiente documentación:

- Documento emitido por una entidad bancaria o de ahorro en el que se acredite que la persona solicitante es titular de una cuenta corriente.
- Solicitud. (III. Anexo, que estará disponible en el Ayuntamiento y en la web).

*\*Ante esta situación de excepción, el Ayuntamiento no solicitará documentación mientras dure la situación de Alarma.*

### **Artículo 3.- Criterios de valoración**

En la concesión de las subvenciones se tendrá en cuenta la renta de los miembros de la unidad familiar:

- Unidad familiar de 1 persona con renta anual máxima de 13.427€, 100 €/ por 15 días.
- Unidad familiar de 2 personas con renta anual máxima de 17.241€, 150 €/ por 15 días.
- Unidad familiar de 3 o más personas con renta anual máxima de 19.072 €, 200 €/ por 15 días.



Usurbilgo Udala

*\*beti ere 2020 urte osoan kopuru hauen azpitik badaude.*

*\*siempre que no se superen estas cantidades durante todo el año de 2020.*

*\*Usurbilgo Udalak, beste hainbat dirulaguntzetarako bezala, Gizarte larrialdietarako laguntza mugak hartuko ditu erreferentzia bezala dirulaguntza honetarako.*

*\*El Ayuntamiento de Usurbil, al igual que otras subvenciones, tomará como referencia los límites utilizados en las ayudas de emergencia social.*

#### **4. artikulua. Dirulaguntza ordaintzea**

#### **Artículo 4. Pago de la subvención**

Dirulaguntza eman dela jakinarazi bezain laster, dirulaguntzaren %100a ordainduko da.

Inmediatamente a la notificación de la concesión de la subvención, se procederá a tramitar el pago del 100% de la ayuda.

#### **5. artikulua. Dirulaguntza justifikatzea**

#### **Artículo 5. Justificación de la subvención**

Dirulaguntza justifikatzeko, pertsona onuradunak jarraian zehazten den dokumentazioa aurkeztu beharko du:

Para la justificación de la subvención, la persona beneficiaria deberá presentar la siguiente documentación:

- Erosketa agiri guztiak.

- Todos los documentos de compra.

Dirulaguntza ekintzaka zurituko da.

La subvención se justificará por actividad.

Jasotako dirulaguntza 15 eguneko epean justifikatu beharko da, berriro ere eskatu ahal izateko.

La subvención recibida deberá justificarse en el plazo de 15 días, para poder volver a solicitarla.

#### **6. artikulua. Zuriketa**

#### **Artículo 6. Justificación.**

##### **6.1. Zuriketarako dokumentazioa:**

##### **6.1 Documentación para la justificación:**

— Gizarte Zerbitzuak beharrezkotzat jo ditzaketen agiriak.

- Aquella documentación que Servicios Sociales considere oportuna.

##### Diru-sarreraren agiriak:

##### Justificantes de los ingresos:

— Pentsiodunak edo prestazio edo subsidioen jasotzaileak: 2020 ekitaldiari dagozkien ziurtagiriak.

- Pensionistas o perceptores de prestación o subsidio: Certificado de las mismas, correspondientes al ejercicio 2020.

— Hilabeteko nominen kopiak.

- Copia de las Nóminas mensuales.

— Banketxetako posizioen agiria.

- Posiciones bancarias.

##### **6.1. Dirua itzultzea:**

##### **6.2 Devolución del dinero:**

Salbuespen egoera honen aurrean, Alarma egoerak irauten duen bitartean Udalak ez du

Ante esta situación de excepción, el Ayuntamiento no solicitará la documentación



Usurbilgo Udala


dokumentaziorik eskatuko.

Alarma egoera bukatu ondoren, dirulaguntza honen eskatzaileei datuak egiaztatzeko eskatuko zaie eta datu horien baitan eta aurkeztutako Dokumentazioa aztertu ostean dirulaguntzak ezarritako kopuruen gaintik dauden kasuetan dirua itzuli beharko da. Dirua bueltatzeko erraztasunak emango dira.

correspondiente durante la situación de Alarma.

Una vez finalizado el estado de alarma, se requerirá a los solicitantes de esta subvención la comprobación de los datos y la devolución de los mismos en aquellos casos en los que, una vez analizada la documentación presentada, superen los importes establecidos por la subvención. Se darán facilidades para devolver el dinero.





Usurbilgo Udala



Usurbilgo Udala

2020ko martxoaren 14an Ministroen Kontseiluak alarma egoera deklaratu du.  
463/2020 Errege Dekretua. COVID-19.

## ESKAERA ORRIA - SOLICITUD

Eskatzailea - Solicitante

IZEN-ABIZENAK- / NOMBRE-APELLIDOS	NAN - DNI
-----------------------------------	-----------

Legezko ordezkaria – Representante legal:

IZEN-ABIZENAK edo SOZIETATEAREN IZENA:	NAN - DNI
--	-----------

Jakinarazpenetarako helbidea - Dirección:

Helbidea – Dirección:		
Posta kodea- CP:	Herria	Herrialdea
Telefonoa:	Fax-a:	E-maila:

Egintza eta arrazoia:

<b>FAMILIA UNITATEKO KIDE KOPURUA – MIEMBROS DE LA UNIDAD FAMILIAR</b>								
1	2	3	4	5	6	7	.....	
<b>DIRULAGUNTZA- SUBVENCIÓN: 1 ERANKIS/ANEXO</b>				<input type="checkbox"/>	<b>2 ERANSKINA/ANEXO</b>			<input type="checkbox"/>

Eskabidea - Solicitud

<b>COVID-19 BIRUSAK ERAGINDAKO SALBUESPENENKO EGOERAK IRAUTEN DUEN BITARTEAN OINARRIZKO ELIKADURA BERMATZEKO DIRULAGUNTZA</b>
<b>Subvención para garantizar la Alimentación Básica durante la situación excepcional provocada por el virus COVID-19</b>

Erantsitako dokumentuak – Documentación adjuntan:

<input type="checkbox"/>	Bankuko kontu korrante ziurtagiria - Certificado del Titular Cuenta Corriente
--------------------------	---

Eskatzailearen sinadura - Firma:

--

Datu pertsonalak Babesteko eta Eskubide digitalen bermerako abenduaren 5eko 3/2018 lege organikoak xedaturikoaren arabera, inprimaki honetan adierazitako datu pertsonalak Usurbilgo Udalaren jabetzako fitxategietara sartuko dira eta udal kudeaketari dagozkion zereginetarako eta zure eskabideari erantzuteko baino ez dira erabiliko. Halaber, beste administrazio publiko batzuei utzi edo jakinarazi ahal izango zaizkie, beti ere Lege honek aurreikusten dituen kasuetan. Datuak eskuratzeko, ezeztatze, zuzentze eta aurka egiteko eskubidea erabili ahal izango da Usurbilgo erregistroan.